

SEKTORE PUBLIKOAREN AURREKONTU-ESTATISTIKAK. 2021

## Euskal AEko Administrazioen zerga bidezko diru-sarrerak % 13,2 egin dute gora 2021ean

**Finantza-entitateekiko epe luzeko zorra, 2021eko abenduaren 31n, BPGd-aren % 17,2 da, 2020an baino 4 hamarren gutxiago**

Euskal AEko administrazioek –Eusko Jurlaritzak, foru-aldundiek eta udal-administrazioek eratzen dituzte–, haien erakunde autonomoekin eta udalaz gaindiko eta azpiko erakundeekin batera, zerga bidezko diru-sarreretan % 13,2ko igoera erregistratu dute, eta 16.732 milioira iritsi dira, Eustatek dituen datuen arabera.

Zerga bidezko diru-sarreraren igoera horrek eragin positiboa dakar eragiketa ez-finantzarioen ondoriozko diru-sarreraren guztizkoaren gainean, zeinak % 16,7ko hazkuntza izan baitu eta 19.785 milioi eurora iritsi baita. Testuinguru horretan, finkatutako diru-sarrerak –21.706 milioi eurokoak izan dira–, guztira, bilakaera positiboa izan dute; % 10,3 egin dute gora, aurreko urtearekin alderatuta, nahiz eta diru-sarrera finantzarioek % 29,3 behera egin duten. Bestalde, gastuak 19.787 milioi eurokoak izan dira; % 5,6 egin dute gora, 2020arekin alderatuta.

### Euskal Administrazioen likidazio finkatua (milaka euro). 2020-2021

|                                         | 2020              | 2021              | Gehikuntza (%) |
|-----------------------------------------|-------------------|-------------------|----------------|
| <b>SARRERAK GUZTIRA</b>                 | <b>19.670.829</b> | <b>21.705.632</b> | <b>10,3</b>    |
| ERAGIKETA ARRUNTAK                      | 16.779.469        | 19.265.203        | 14,8           |
| Zerga-sarrerak                          | 14.785.737        | 16.732.123        | 13,2           |
| PFEZ                                    | 5.684.416         | 6.152.215         | 8,2            |
| Sozietate-zerga                         | 1.064.120         | 1.166.218         | 9,6            |
| BEZA                                    | 5.224.239         | 6.266.824         | 20,0           |
| ZERGA BEREZIAK                          | 1.364.935         | 1.547.714         | 13,4           |
| Udal zergak                             | 766.319           | 782.028           | 2,0            |
| BESTE ZERGA BATZUK                      | 681.708           | 817.124           | 19,9           |
| Bestelako sarrera arruntak              | 1.993.732         | 2.533.080         | 27,1           |
| KAPITAL ERAGIKETAK                      | 173.315           | 519.455           | 199,7          |
| ERAGIKETA EZ-FINANZARIOAK, GUZTIRA      | 16.952.784        | 19.784.658        | 16,7           |
| FINANTZA ERAGIKETAK                     | 2.718.046         | 1.920.974         | -29,3          |
| <b>GASTUAK GUZTIRA</b>                  | <b>18.745.944</b> | <b>19.786.990</b> | <b>5,6</b>     |
| ERAGIKETA ARRUNTAK                      | 15.903.803        | 16.616.898        | 4,5            |
| Pertsonal gastuak                       | 4.050.572         | 4.207.523         | 3,9            |
| Transferentzia arruntak                 | 5.639.082         | 5.820.428         | 3,2            |
| Beste gastu arrunt batzuk               | 6.214.149         | 6.588.946         | 6,0            |
| INBERTSIOAK ETA KAPITAL-TRANSFERENTZIAK | 1.557.252         | 1.823.973         | 17,1           |
| ERAGIKETA EZ-FINANZARIOAK, GUZTIRA      | 17.461.054        | 18.440.872        | 5,6            |
| FINANTZA ERAGIKETAK                     | 1.284.890         | 1.346.118         | 4,8            |
| <b>ERAGIKETA ARRUNTEN SALDOA</b>        | <b>875.666</b>    | <b>2.648.305</b>  | <b>202,4</b>   |
| <b>AURREKONTUSALDO EZ-FINANZARIOA</b>   | <b>-508.271</b>   | <b>1.343.786</b>  | <b>-</b>       |

Data 2023ko Ekainaren 26a

Iturria: Eustat. Sektorre Publikoaren Aurrekontuen Estatistikak

Eragiketa ez-finantzarioei dagokienez, bai diru-sarrerek bai gastuek bilakaera positiboa izan dute, 2020arekin alderatuta; % 16,7ko igoera izan da diru-sarreretan eta % 5,6koa, gastuetan. Emaizta hori *Aurrekontu Saldo Ez Finantzarioan* islatzen da, zeina positiboa izan baita, 1.344 milioi euroan 2021ean, 2020ko 508 milioi euro negatiboen aldean.


**Diru-sarrera ez-finantzarioek** % 16,7 egin dute gora; igoera hori *diru-sarrera arrunten* % 14,8ko igoeraren ondorioz izan da, zeinak diru-sarreraren guztizkoaren % 77,1 izan baitziren. Era berean, igoera hori *kapital-eragiketengatiko diru-sarreretan* izan den % 199,7ko igoera handiaren ondorioz ere izan da.

Bestalde, **finantza-eragiketen** analisiari dagokionez, bilakaera desberdinak ikusten dira diru-sarrera eta gastuen artean; izan ere, diru-sarrera finantzarioak 1.921 milioi eurora iritsi dira (aurreko urtean baino % 29,3 gutxiago), eta gastu finantzarioak 1.346 milioi eurora, alegia, % 4,8ko igoera 2020. urtearekin alderatuta.

2021ean, portaera positiboak izan dira **zerga bidezko diru-sarrerei** buruzko datuetan. Hala, partida honek –diru-sarrera guztien % 86,9 hartu du– goranzko baterako tasa izan du, % 13,2koa. **Igoera** nabarmenenak honako hauei dagozkie: *Zerga bereziak* (% 13,4), *Beste zerga batzuk* (% 19,9) eta, nagusiki, *BEZa* (% 20,0); azken horrek, igoera handiena izateaz gainera, % 37,4rekin, diru-sarreraren guztizkoari ekarpen handiena egiten diona ere bada. *PFEZri* guztizkoaren % 36,8 dagokio eta % 8,2 egin du gora; *Sozietateen gaineko zergak* % 7,0ko pisua du eta % 9,6 egin du gora, eta *Udal-zergak* % 2,0 egin du gora, baina guztizkoaren % 4,7 baino ez dagokio.

## Euskal AEko administrazioen zerga-sarreraren banaketa. 2021

Ehunekoak



Iturria: Eustat. Sektoze publikoaren aurrekontuen estatistikak

Aldi erabilgarriak 2021 ▼

**Beste diru-sarrera arrunt batzuk** –tasak, transferentziak eta ondare bidezko diru-sarrerak jasotzen dituzte, besteak beste– eragiketa arruntengatiko diru-sarrera guztien % 13,1 izan dira, eta % 27,1eko igoera izan dute.

**Gastu arruntei** dagokienez, % 4,5eko igoera izan dute. Igoera hori, nagusiki, *Beste gastu arrunt batzuk* partidaren ondorio izan da, zeinak, gastuen guztizkoaren gaineko % 33,3ko pisuarekin, % 6,0 hazkuntza izan baitu, 2020aren aldean. Ondoren, *Langileen gastuak* partida dago, zeinak, % 21,3ko pisuarekin, % 3,9 egin baitu gora, eta, bestalde, *Transferentzia arruntak* partidak % 3,2 egin du gora.

**Inbertsio eta kapital-transferentzietako** gastuak guztizkoaren % 9,2 izan dira, eta % 17,1eko igoera erregistratu dute, aurreko urtearen aldean.

Erakundeen arabera, Eusko Jaurlaritzak 778 milioiko aurrekontu-saldo ez-finantzario positiboa erregistratu du. Lurralde-administrazioen artean (foru-aldundiak eta toki-entitateak), lurralde guztiek dituzte saldo positiboak: Gipuzkoa nabarmentzen da, 219 milioiko saldoarekin; ondoren, Bizkaia, 204 milioirekin, eta, azkenik, Araba, 142 milioiko saldo positiboarekin.

## Euskal Administrazioen datu finkatuak (milaka euro). 2021

|                                                        | Guztizko bateratua | Eusko Jaurlaritza | Araba / Álava  | Bizkaia          | Gipuzkoa       |
|--------------------------------------------------------|--------------------|-------------------|----------------|------------------|----------------|
| SARRERA ARRUNTAK                                       | 19.265.203         | 12.232.219        | 2.999.918      | 9.213.749        | 6.082.361      |
| GASTU ARRUNTAK                                         | 16.616.898         | 10.843.675        | 2.762.540      | 8.659.478        | 5.614.250      |
| <b>ERAGIKETA ARRUNTEN SALDOA</b>                       | <b>2.648.305</b>   | <b>1.388.544</b>  | <b>237.379</b> | <b>554.271</b>   | <b>468.111</b> |
| KAPITAL-SARRERAK                                       | 519.455            | 344.464           | 41.912         | 79.433           | 90.350         |
| KAPITAL GASTUAK                                        | 1.823.973          | 954.559           | 137.063        | 429.525          | 339.530        |
| <b>AURREKONTUSALDO EZ-FINANZARIOA</b>                  | <b>1.343.786</b>   | <b>778.449</b>    | <b>142.227</b> | <b>204.179</b>   | <b>218.930</b> |
| <b>DEUDA VIVA (Pendiente de amortizar 31-10-21) ##</b> | <b>13.436.962</b>  | <b>10.594.316</b> | <b>641.461</b> | <b>1.772.838</b> | <b>428.347</b> |

Data 2023ko Ekainaren 26a

Iturria: Eustat. Sektoare Publikoaren Aurrekontuen Estadistikak

Zor bizia (erakundeek finantza-erakundeekin epe luzera dituzten maileguen ondorioz ordaintzeko duten **zorra**), 2021eko abenduaren 31n, 13.437 milioi eurokoa izan da, BPGd-aren % 17,2; hala, ehuneko lau hamarren jaitsi da, 2020arekin alderatuta. 2021eko pasibo berriak 1.850,9 milioikoak izan dira, eta amortizazioak, 1.001 milioikoak.

2021aren amaieran amortizatzeke zor bizi osotik, Eusko Jaurlaritzarena % 78,8 da, Bizkaiarena % 13,2, Gipuzkoarena % 4,8 eta Arabarena gainerako % 3,2a.

### Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística  
Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz  
Prentsa Zerbitzua: [servicioprensa@eustat.es](mailto:servicioprensa@eustat.es) Tel.: 945 01 75 62